

GR 38 ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO

Ardoaren eta arrainaren ibilbidea antzina mandazainek eta merkatariek Bizkaiko arantzak portu nagusien eta Arabako Errioxaren artean egiten zuten bidea zen, produktu horien eta beste batzuen merkatarizarako.

La ruta del vino y del pescado era la ruta que antiguamente recorrían arrieros y mercaderes entre los principales puertos pesqueros de Bizkaia y Rioja Alavesa, para el comercio de estos y otros productos.



GOMENDIOAK RECOMENDACIONES


- Saia zaiten etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.
- Eraman beti behar den beste hornigailu (ura, janaria, jantziak, botikina, mugikorra...).
- Ez piztu surik, horretarako diren lekuetan izan ezik, eta erretzailera bazara gorde zure zigarrokinak.
- Gomendagarria da mugikorraren bateria ondo kargatuta eramatea.
- Ez irten seinalezatutako bideetatik, errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.
- Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.
- Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, ropa, botiquín, móvil...).
- No enciendas fuego, salvo en los lugares destinados a ello y si fumas llévate las colillas.
- Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.
- No te salgas de los caminos señalizados, respeta el entorno y a los demás senderistas.



Etapa honetan, Arabako Errioxa atzean utzi eta baso zabalez osatutako Kantabria-Tolonia mendilerroko hesi orografikoa gainditzeko bideari ekingo diogu. Kanpezuko Koadrila-Arabako Mendialdeko lurak zeharkatuko ditugu, Lagrango hirigunea bisitatuz eta Trebiñuko konderrian amaituz. Bertan, kobazulo artifizialak ikusteko aukera izango dugu, Laño eta Albaina terminoetan.

Durante esta etapa iremos dejando atrás Rioja Alavesa superando la barrera orográfica de la Sierra de Cantabria-Tolonia, poblada por extensos bosques. Atravesaremos tierras de la Cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa, visitando el núcleo de Lagrán, y finalizaremos en el burgalés Condado de Treviño, donde podremos observar cuevas artificiales en los términos de Laño y Albaina.

22,7 km 850 m 7h MIDE 2-2-2-4



- 2 Arrisku-faktore bat baino gehiago dago Hay más de un factor de riesgo
- 2 Bidezidorrak edo norabidea adierazten duten seinaleak Sendas o señalización que indica la continuidad
- 2 Ferra-bideetan egindako ibilaldia Marcha por caminos de herradura
- 4 6 ordutik gorako eta 10 ordura arteko benetako ibilaldia Más de 6 h y hasta 10 h de marcha efectiva

Bidezatia / Tramo LAGUARDIA > LAGRAN

km 0 ----- **LAGUARDIA.** Laguardiako kiroldegitik aterako gara, iparralderantz. Laster, Billarretik datorren errepidea gurutzatu ondoren, eskuinetara GR 120aren desbideratzea utzi eta historiaurreko La Hoya herrixkaren aztarnategiaren ondortik igaroko gara, ondoren, karraska artean Kantabria-Tolonia mendilerorantz abiatzeko. Bide hau Laguardia hiria eta Lagran lotzen zituen bide zaharra zen, merkatariek eta mandazainek mendeetan zehar erabili izan zutena.

km 7,7----- **TORO MENDATEA.** Mendi-lepora iristean, Gazteluko Gurutzeko saihe bidea aurkituko dugu. Hemen gertaera berezi bat ematen da: karraskak eta erkametzak atzean utzi eta Egako haranera jaisten hasten garenean, landaretza erabat aldatzen da. Iparraldeko hegala, askoz ere hezeagoa da eta pagoekin estalita dago. Jaitsieran, GR 1arekin gurutzatu eta mendi hauen antzinako jardueraren lekuko diren ikaztegi zaharberriak batzuk ikusiko ditugu.

km 0 ----- **LAGUARDIA.** Salimos de Laguardia desde el polideportivo en dirección norte. Pronto, tras cruzar la carretera que conduce a Elvillar, dejamos a la derecha el desvío del GR 120 y pasamos junto al yacimiento del poblado prehistórico de La Hoya. Encaramos la ascensión a la sierra de Cantabria-Tolonia adentrándonos en un carrascal por donde discurría el antiguo camino que unía la Villa de Laguardia con Lagrán, utilizado durante siglos por comerciantes y arrieros.

km 7,7----- **PUERTO DEL TORO.** Al llegar al alto encontramos el desvío a la Cruz del Castillo. Dejamos atrás carrascas y quejigos produciéndose un curioso efecto, ya que, al empezar a descender hacia el valle del Ega, cambia completamente la vegetación. La ladera norte, mucho más húmeda, está cubierta por un tupido hayedo. En el descenso nos cruzamos con el GR 1 y pasamos junto a algunas carboneras restauradas que sirven de testigos de la antigua actividad de estos montes.

KMZ GPX

ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO

GR 38

2

LAGUARDIA > ALBAINA

Km 22,7 850m 7h



eu es **EUSKADI** BASQUE COUNTRY

IKURRAK LEYENDA

	GR 38		Taberna / Jatexea / Bar / Restaurante		Diru kutxa / Cajero
	Beste GRak / Otros GRs		Museoa / Museo		Denda / Tienda
	Iturria / Fuente		Aterpetxea / Albergue		Medikua / Servicio médico
	Atsedengunea / Área recreativa		Ostatu turistikoak / Alojamientos turísticos		Farmazia / Farmacia
	Eralkin erlijiosoa / Edificio religioso		Akanpada gunea / Zona de acampada		Interpretazio zentroa / Centro de interpretación
	Interes puntua / Punto de interés				

LAGUARDIA

LAGRAN

Ibilbidearen jarraipena / Continuidad del sendero
Norabide aldaketa / Cambio de dirección
Okerreko norabidea / Dirección equivocada

LAGUARDIA Km. 0 TORO MENDATEA / PUERTO DEL TORO Km. 7,7 LAGRAN Km. 11,6



EZ GERATU EZAGUTU GABE! ¡NO TE LO PIERDAS!

La Hoya herria XX. mendeko 30. hamarkadan aurkitu zuten. Aztarnategi arkeologiko bat da, non, Brontze Aroaren amaiera eta Lehen Burdin Aroaren artean, k. a. III. mende inguruan, giza asentamendu baten fase eta bilakaera ezberdinak ezagutu ahal izango ditugun. Herriaren kanpoaldean oraindik harresiaren aztarnak daude zenbait zatitan.

El poblado de La Hoya fue descubierto en los años 30 del siglo XX. Se trata de un yacimiento arqueológico en el podremos conocer las distintas fases y evolución de un asentamiento humano entre finales de la Edad de Bronce y la primera Edad de Hierro, de hacia el siglo III a.C. En la periferia del poblado aún permanecen restos de la muralla en algunos tramos.



Kantabria-Tolonia Mendilerroa, hegoaldeko isurialdeko erliebe malkartsu eta iparraldeko isurialdeko pagadi eta harizti zabalengatik nabarmetzen da, baita Arabako Errioxa eta gainerako Araba bereizten dituelako ere. Hesi natural malkartsu hau mandazainek, bidaiariek eta tropa militarrek zeharkatu izan dute mendeetan zehar.

La Sierra de Cantabria-Tolonia, que destaca por un relieve escarpado y rocoso en su vertiente sur y por extensos hayedos y robledales en la vertiente norte, separa Rioja Alavesa del resto de Álava. Esta accidentada barrera natural, ha sido franqueada por arrieros, viajeros y tropas militares durante siglos.



Bidezatia / Tramo LAGRAN > ALBAINA

km 11,6-- **LAGRAN.** Herritik mendebalderantz abiatu eta, ikuztegi baten ondotik igarotzean, eskuinera egingo dugu pagadi zoragarri batean sartzeko. Avellanoko mugariak Araba eta Trebiñuko konderrien arteko muga markatzen du. Lañora iritsi baino lehen, Santa Marina ermita aurkituko dugu, eta herrian bertan, freskatzeko iturri bat.

km 19,2-- **LAÑO.** Errepidetik irtengo gara herrigune txiki honetatik. Handik gutxira lurrezko bide batetik segituko dugu eta laster, Las Gobaseko haizulo artifizialekin topo egingo dugu. Goi Erdi Aroko eremitek zulatutako labar-barrunbeak dira. Batzuek "Euskal Kapadocia" izenez ezagutarazi dute konplexu interesgarri hau. Bertan, harkaitzean landutako tenpluak ikusi ahal izango ditugu, beraien absideak, kontra-absideak eta hilobiak aurkituz, besteak beste. Albainara, hau da, etapa amaierara iristeko, iparralderantz jarraituko dugu partzelariatik, lehenengo bidegurutzean aurrez aurre jarraituz eta bigarrenean eskuinera eginez.

km 22,7-- **ALBAINA.**

km 11,6-- **LAGRAN.** Salimos de la antigua villa en dirección oeste y al pasar junto al lavadero, giramos a la derecha para internarnos en un encantador hayedo. El mojón de El Avellano marca el límite entre Álava y el Condado de Treviño, en el que nos internamos. Justo antes de alcanzar Laño, encontramos la ermita de Santa Marina, y ya en el pueblo encontraremos una fuente en la que refrescarnos.

km 19,2-- **LAÑO.** Salimos del pequeño núcleo por la carretera que dejamos al poco para continuar por camino. Pronto nos toparemos con las cuevas artificiales de Las Gobas. Se trata de cavidades rupestres excavadas por eremitas durante la alta edad media. Algunos han dado a conocer este interesante complejo como "la Capadocia vasca". En ellas podremos visitar verdaderos templos tallados en la roca con sus ábsides, contra ábsides, sepulturas, etc. Para alcanzar el final de etapa en Albaina continuamos hacia el norte por parcelaria, siguiendo de frente en la primera intersección y tomando a la derecha en la segunda.

km 22,7-- **ALBAINA.**



TELEFONO INTERESGARRIAK TELÉFONOS DE INTERÉS

Laguardiako turismo bulegoa
Oficina de Turismo de Laguardia 945 600 845

La Travesía. GR 38-aren interpretazio zentroa
Centro de interpretación del GR 38 945 046 852

Larrialdiak
Emergencias



turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/



KONTUAN HARTU BEHARREKOAK A TENER EN CUENTA

• Etapa honetan, GR 120 Inaziotar Bidea eta GR 1 Ibilbide Historikoa ibilbide luzeekin gurutzatuko gara. Arreta berezia jarri bidezidor hauen bidegurutzeetan, marka gorriak eta zuria beste norabide batean ez jarraitzeko.

• En esta etapa el GR 38 coincide con el GR 120 Camino Ignaciano y el GR 1 Sendero Histórico. Presta especial atención en las bifurcaciones con estos senderos para no seguir las marcas rojas y blancas en otra dirección.

• Lagranen "La Travesía", GR 38 Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidearen Interpretazio Zentroa dago. Bertan proiektzioak, mapak eta informazio panelak aurkituko dituzu. Gainera, indarberritzeko leku egokia da, etapa polit honen hasieraren eta amaieraren artean dagoen taberna edo jatetxe bakarra baita.

• En Lagrán encontramos "La Travesía", Centro de Interpretación del GR 38 Ruta del Vino y el Pescado. Aquí encontrarás proyecciones, mapas y paneles informativos. Es además el lugar apropiado para reponer fuerzas ya que es el único bar o restaurante entre el inicio y el final de esta bonita etapa.

• Lagrandik gertu, San Bartolome ermitaren ondoan, udal aterpetxe bat eta kanpatzeko gune bat daude. Tel.: 945 37 80 59

• Cerca de Lagrán, junto a la ermita de San Bartolomé existe un albergue municipal y una zona de acampada. Tfno: 945 37 80 59



2021: Covid 19ren pandemian gauden bitartean, eutsi eskuen higieneari eta distantzia sozialari, eta jarraitu agintariek mugikortasunari edo maskaren erabilerari buruz emandako aginduei. Horrez gain, komeni da aldez aurretik egiaztatzea ostatu eta beste zerbitzu batzuen irekitzeko ordutegiak eta egutegiak.

2021: Mientras nos encontremos en pandemia de Covid 19, extrema la higiene de manos y distancia social, y sigue las indicaciones de las autoridades referentes a la movilidad o el uso de mascarillas. Además, es recomendable comprobar previamente los horarios y calendarios de apertura tanto de alojamientos como de otros servicios.

